

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: I. M.^a Etxaide jauna, buru, Oleaga, Lekuona, Mitxelena, Arrue ta Irigaray jaun euskaltzaiñak. Eta San Martin, Etxaniz, Labayan, eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Aita Joakin Bedoña-koaren gorazarrez Euskaltzaindiak imini eban literatura-sariketarako izentau zan batzarrak erabagi au dakar:

“Donostian bildurik Aita Joakin Bedoñakoaren gorazarrez jarri zan literatura-sariketarako Euskaltzaindiak izendatu zuen batzarrea, ao batez erabaki da:

Poesia: Lendabiziko saria, bi milla pesetakoa, “Maldan behera” poemari ematea. Egillea Gabriel Aresti (Bilbao); bigarrena, milla pesetakoa, “Lelo xamurrak” Fr. Victoriano Gandiaga-k (Arantzazu) egindakoari; bosteun pesetako sari bi urrengo jaun auk bialdu dituzten poesia: Fernando Artola “Bordari” (Fuenterrabia) eta Aita Policarpo Iraizoz-koa (Roma).

Itz lauz: Lendabiziko saria, milla pesetakoa, “Loramendi eta bere garaiko euskal-literaturaz” egindako lanari. Egillea Luis Jauregui jauna (Zarauz); bigarren saria, bosteun pesetakoa, Aita Julian Yurre-koak gai bera duela bialdutako lanari.

Teatroa: Lendabiziko saria, bi milla ta bosteun pesetakoa, “kanpaien atseka-bez” tituludun lanari, Eusebio Erquiaga-k (Bilbao) bialdua; bigarrena, milla ta bosteun pesetakoa “Leniz”ko alaba” Jose Antonio Arcocha Martija-k (Ondarroa) bialdutako lanari.

Batzarreak bere poz aundia jakinerazi nai du artu diran lan ugari eta ederrengatik, batez ere poesia arloan. Irurogeitik gora dira. Sarituez gaiñera uste du aipamen berezi bat merezi dutela urrengo poesia auk: “Izar eta odei” Antonio Bilbao (Morga), “Sei olerki” Jaime Querexeta (Elorrio), “Lizardi’renean” J. Ignacio Goicoechea (Tolosa). “Egun txintatik arratseraño” A. Eusebio Igarza, O. S. B. (Lazcano), “Bedoña’rako osto bikoitza” Eusebio Erquiaga (Bilbao), eta baita, teatro lan bi auk: “Bertsolari sariketa” eta Berpizkunde goizean”, biak Manuel Ziarsolo-renak (Bilbao).

Donostian, 1959 Irailaren 13-an. Firmatzaileak: Jose Maria Lojendio, Antonio Arrue, Aingeru Irigaray eta Luis Mitxelena”.

Oleaga jaunak diño Bizkaiko Bertsolarien Bigarren Sariketea amaitu dala eta Bilboko azken txapelketa nagusia guztiz ondo egon zala, millaka persona entzule egon zireala, eta guztiagaitik zorionak eta eskerrak emon bear jakozala Alfonso Irigoyen jaunari. Azken txapelketa nagusirako Dña. Concha Goiri eta bere lagunak lau

Donostian, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide, buru, Lekuona, Mitxelena, Villasanté, Gorostiaga, Arrue, Irigarai euskaltzaiñak. Aita Larrañaga Pingliang-go apezpikua, Alvarez Emparanza, San Martin, Etxaniz, Mugica ta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aita Mugica-k egiten ari dan iztegiar lan luze bat irakurri dau, eta itaun batzuk egin ditu garbian iminterakoan eretxi finkatu bategaz ekiteko. Itaunak egin ala batzartuak barriketa oso jakingarriak izan dituez, batez be idazteko moduz. Beste izkuntzetatik datozen berbetan batzuk uste dabe arrunta danean esaten dan moduan idatzi bear dala, baiña kultura-bidez datorrenean jatorrizko itxura begietatik sartzen dana galdu barik aal dan neurrian.

Atsegiñez beterik ikusi da Aita Mugica-ren jarduna eta egiten ari dan lan bikaiña.

Aita Mugica-k eskatzen dau ia Azkue egiten ari zan iztegia eta Euskaltzaindiaren etxean dagoena ikusi leien. Ikusi begi.

Azkue-ren iztegi barritu ta osotuaren lanetarako diru-eskabideak egin bearra dago aurrera jarraitu gura bada. Datorren illerako ekarri bedi erabagi-bideren bat.

Eibarko batzarren gaiñean berba egin da. Baimena lortuta dago guztirako. Gipuzkoako bertsolarien txapelketa nagusirako Diputazioak makilla bat emon dau lenengo urtetan dauenarentzat. Gipuzkoako Ahorro-Kaxeak iru milla peseta eta kopa bat. Eibarko Ayuntamentuak bi milla peseta. Club Deportivo Eibarkoak bost sari bosteun pesetako.

Irigoyen-ek diño zelan Bizkaiko Ahorro-kaxeak zortzi milla peseta eskeiñi dituen datorren urteko Domingo Agirre novela-sarirako ahorroaren eguna dala-ta. Sariketearen oiñarriak aurrekoaren modukoak izan beitez, sari bakar eta zatitu ezin bat iminirik.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.